

ORDEZKARIA

HELBURUAK

Taldeko ordezkariaren aukeraketa era arduratsu batean egiteko informazioa eta irizpideak izatea .
Ordezkariaren funtzioari balioa ematea.
Ordezkaria aukeratzea.

JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Aurretik egindako jarduerak balio digu ikasleen arteko ezagutza handitzeko. Baina ordezkariaren aukeraketa egin baino lehen komeni zaie ordezkari lanak zer suposatzen duen jakitea eta horri begira antolatuko dugu saio hau. Oso garrantzitsua da beraiek barneratzea edozein izan daitekeela, baina jakin behar dute ere bere eskubideak eta betebeharrak izan behar dituela, edozein rolaekin gertatzen den moduan, kasu honetan ordezkariaren rolak bete eta izan behar dituenak. Komeni da ere aukeratua izango denak ikaste prozesua bezala hartzea, hau da, ordezkaria izateak hainbat estrategia ikasteko aukera emango diola. Baina ez du berak bakarrik ikasiko, gelakideek ere beren ordezkaria dutenez ikasi beharko dute ere nola erabili figura hori. Garrantzia emango diogu erantzukizuna garatzeko erari.

Erabiliko dugun materiala hau izan daiteke:
Ordezkariaren funtzioa eta eskubideen orria
Papertxo zuriak botazioa egiteko
Akta-orria
Kaxa bat papertxoak botatzeko

ORDEZKARIA

A. FITXA. ORDEZKARIAREN FUNTZIOAK

1. Taldeko kideen ordezkari izan.
2. Taldeko arazo edo nahien bozeramaile izan.
3. Arazoak edo kezkak egonez gero Tutorearekin edo gelako bizikidetza batzordearekin koordinazioa izan.
4. Aurre ebaluazio saioetan, gelako bozeramaile izan eta irakasleei zuzendu gelan jasotako iritziak, iradokizunak eta erabakiak.
5. Ordezkarien bileretan parte hartu.
6. Eskolako kontseiluko ordezkariari arazo eta iradokizunaren berri eman.
7. Gelako kideei ordezkari zein Eskolako Kontseiluko bileretan aztertutakoa azaldu.
8. Ikasleen betebeharrak eta eskubideak defenditu.
9. Irakasle eta zuzendaritzarekin elkarlanean aritu Institutuko instalazioak, materiala, arauak eta ordena mantentzeko.

ORDEZKARIA

B. FITXA. ORDEZKARIAREN ESKUBIDEAK

1. Institutuko aginte organo desberdinetan, landuko diren gaiak eskatzen duten neurrian, hitz egin.
2. Ordezkaritza bileretan, Eskolako Kontseiluetan....erabakitakoaz informatua izan.
3. Arrazoi justifikatuengatik kargua utzi.
4. Parte hartzen duen bileretan entzunda izan .
5. Egiten dituen iradokizunak kontuan izan.
6. Gelakoekin bilerak egiteko denbora izan.
7. Beste ordezkariekin biltzeko denbora izan .

ORDEZKARIA

D. FITXA. ORDEZKARIAREN FUNTZIOAK, ESKUBIDEAK ETA EZAUGARRIAK

FUNTZIOAK EDO BETEBEHARRAK

ESKUBIDEAK

EZAUGARRIAK

ORDEZKARIA

E. FITXA. ERANTZUKIZUNAREN GARAPENAREN ANALISIA

Gizarte honek erantzukizunaren globaltasuna kontuan ez duen garapen partziala sustatu du, izan ere, emakume eta gizonei lana eta espazio desberdina esleitu die eta rol desberdinak betearazten dizkie. Hortaz, gizonek zein emakumeek alderdi batzuk besteak baino gehiago garatu dituztela antzeman dezakegu.

Gizarte-mailan **ondokoa utzi da emakumeen erantzukizunpean:**

- * Etxearen eremuari dagokion guztia.
- * Egunean eguneko arazoan ebazpena: elikadura, higiena, heziketa, osasuna eta abar.
- * Familiaren ondasunak banatzea eta esleitzen zaizkion baliabide ekonomikoak optimizatzea.
- * Haurrak eta beste pertsonak zaintzea.
- * Familiako harreman afektiboak eustea, familiako gainerako pertsonen gatazken ebazpena bere gain hartzea, ongizate psikologikoa zaintzea eta gizarteko zenbait espazio edo egoeretan familia ordezkatzea.

Eta, horrenbestez, **ez dira prestatu ondoko zereginak beren erantzukizunpean hartzeko:**

- * Beren buruaz arduratzea, beren osasuna zaintzea, berentzako espazio eta denbora edukitzea, aisialdiaz gozatzea, eta abar.
- * Gizarte- eta politika-mailan gertatzen den guztia.

Gizarte-mailan **ondokoa utzi da gizonen erantzukizunpean:**

- * Eremu publikoari dagokiona antolatzea.
- * Gizarte-mailakoa dena kudeatzea: kultura, komunikabideak, garapen ekonomikoa eta teknikoak eta abar garatzea.
- * Kudeaketa politikoaren esparruan erabakiak hartzea.
- * Familiaren mantenurako baliabide ekonomikoak lortzea.
- * Familia gizarteko beste espazio eta egoeretan ordezkatzea.

Eta, horrenbestez, **ez dira prestatu ondoko zereginak beren erantzukizunpean hartzeko:**

- * Beren osasuna eta bestelako oinarrizko gaiak zaintzeko autonomo izatea: higiena, elikadura, harreman pertsonalak, afektiboak eta abar.
- * Bere inguruko pertsonak zaintzeaz eta, beren aitatasuna dela-eta, dagokien guztiaz arduratzea.

ORDEZKARIA

IRAKASLEARENTZAKO JARRAIBIDEAK

Jarduera hau egiteko bi saio erabiliko ditugu

Lehen saioa

1. Saio honetan lehenengo talde handian egingo dugu lana . . Komenigarria da antolamendu honek eskatzen dituen arauak errespetatzea .Beharrezkoa ikusten badugu rolak banatuko ditugu: moderatzailea, denboraren kontrolatzailea, behatzailea....
2. Jarduerearen helburuak eta egiteko modua azalduko dizkiegu.
3. E.Fitxa azalduko diegu eta zalantzak argituko ditugu.
4. Ondoren F fitxa egingo dute bakarka, beraz gela horren arabera antolatuko dugu eta horretarako dauden arauak gogoratuko ditugu.
5. Giro lasaia izateko eta kontzentratzen laguntzeko erlaxazio txikia egingo dugu hasi baino lehen.
6. Ondoren taldeka jarriko dira egindakoa komentatzeko Taldeak egingo ditugunez, antolamendu honek eskatzen dituen arauak eta rolak gogoratuko ditugu.Beharrezkoa ikusten badugu behatzailea jarriko dugu.
7. Bukatzeko, talde handian berriro taldeetan egindakoa komentatuko dugu Komenigarria da antolamendu honek eskatzen dituen arauak errespetatzea Beharrezkoa ikusten badugu rolak banatuko ditugu: moderatzailea, denboraren kontrolatzailea, behatzailea....
8. Behatzailea egon bada berak emandako informazioa karpeta pertsonalean sartuko dugu.

Bigarren saioa

1. Saio honetan lehenengo talde handian egingo dugu lana . . Komenigarria da antolamendu honek eskatzen dituen arauak errespetatzea .Beharrezkoa ikusten badugu rolak banatuko ditugu: moderatzailea, denboraren kontrolatzailea, behatzailea....
2. Ordez kariaren figuraren garrantzia azalduko zaie eta bere funtzioak eta eskubideak komentatuko dira.
3. Ondoren taldeka jarriko dira beraien artean funtzioak eta eskubideak komentatzeko eta nahi izanez gero aurreko saioan ateratakoarekin iradokizunak egingo dituzte.Baita ere ordez kariak izan edo garatu behar dituen ezaugarriak komentatuko dute Horretarako A , B eta D fitxa emango zaizkie.Taldeak egingo ditugunez, antolamendu honek eskatzen dituen arauak eta rolak gogoratuko ditugu.Beharrezkoa ikusten badugu behatzailea jarriko dugu.
4. Talde handian jasoko dugu taldeetan egindakoa eta ondoren botazioa egingo dute. Bi izen eman behar dituzte eta gutxienez bat neska izan behar da. Komenigarria da antolamendu honek eskatzen dituen arauak errespetatzea Beharrezkoa ikusten badugu rolak banatuko ditugu: moderatzailea, denboraren kontrolatzailea, behatzailea....